

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LAUDIO UDALA

Unibertsitateko eta Lanbide Heziketako prestakuntza-zikloetako ikasleek praktika akademikoak Audio Udalean egiteko programaren oinarri arautzaileak - 2021. Urteari dagokion deialdia

Udal honetako alkate-udalburuak 119 zenbakiko dekretua eman du, 2021eko urtarrilaren 29koa, eta honela dio xedapen-zatiak:

LEHENENGOA. Onestea Unibertsitateko eta Lanbide Heziketako prestakuntza-zikloetako ikasleek praktika akademikoak Audio Udalean egiteko 2021eko programa, ebazpen honi erantsitako oinarrien arabera.

BIGARRENA. Argitaratzea praktika akademikoen programa horren deialdia ALHAOn.

HIRUGARRENA. Ebazpen honek administrazio-bidea amaitu du. Ebazpenaren aurka aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahalko da ebazpena eman duen organoaren aurrean; hilabete (1) epea dago horretarako, ebazpenaren jakinarazpena jasotzen den egunaren biharamunetik aurrera zenbatuta, urriaren 1eko 39/2015 Legearen, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoaren 123. eta 124. artikuluetan xedatutakoarekin bat. Ez bada ipintzen goian aipatu den aukerako berraztertze-errekurtsoa, irekita geratuko da auzibidea eta, beraz, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahalko da Gasteizen, Administrazioarekiko Auzien Epaitegian; hilabete biko (2) epea dago horretarako, ebazpen honen jakinarazpena jasotzen den egunaren biharamunetik aurrera zenbatuta.

ERANSKINA

Unibertsitateko eta Lanbide Heziketako prestakuntza-zikloetako ikasleek praktika akademikoak Audio Udalean egiteko programaren oinarri arautzaileak - 2021. urtea

1. Objektua eta xedea

Oinarri hauen helburua da unibertsitateko eta lanbide heziketako prestakuntza-zikloetako ikasleek 2021. urtean praktika akademikoak Audio Udalean egiteko programa arautzea, beraz, xedatutakoaren arabera.

Programa honek Lanbide Heziketako ikastetxeekin eta unibertsitateekin lankidetzan jardutea du helburu, ikasleen prestakuntzaren kalitatea hobetzeko, haien ikasketa planak osatuz, dituzten ezagutzak herri administrazioaren alorrean aplikatuta, eta, era berean, errealitate praktikoa ezagutzeko aukera emanez beren prestakuntza profesionalaren garapenari begira.

2. Ezaugarriak

Praktika akademikoek prestakuntza izaera dutenez, haiek egitetik ez dira, inolaz ere, lan-harreman batek bere dituen obligazioak sortuko, praktika eta prestakuntza dualaren inguruan indarrean dagoen araudiak ezartzen dituenak ezik, eta haien edukiak ezin izango du Audio Udaleko lanpostuek beren duten lan-prestazioa ordezkatu.

Ikasleak egin beharreko zereginak prestakuntza-proiektuari lotuak egongo dira beti, eta ez dute inola ere bat egingo Udaleko lanpostuei dagozkien zeregin edo eginkizunekin.

Era berean, ikasketak bukatutakoan ikaslea Audio Udaleko langileen zerrendan sartuko balitz, orokorrean, praktiketako denboraldia ez da zenbatuko antzinatasun ondorioetarako, ez du probaldia egitetik salbuetsiko eta ez da meritu gisa hartuko funtzio publikoan sartzeko orduan.

3. Praktiken iraupena eta ordutegiak

Egiten den prestakuntza-proiektuaren arabera finkatuko da praktikaldi akademikoaren iraupena, eta 2021. urtean zehar hasi beharko du nahitaez. Praktika horiek dituzten ezaugarrien arabera zehaztuko dira egutegia eta egiteko ordutegia, Audio Udalaren baliabideak kontuan harturik, beti ere.

4. Praktikak egiterakoan parte hartuko duten pertsonak

— Tutorea: ikastetxeko edo unibertsitateko kide den irakaslea, Audio Udalean praktika akademikoak egin behar dituzten ikasleen jarraipenaz eta haiei laguntza emateaz arduratuko dena.

— Begiralea: Audio Udaleko langilea, prestakuntza-programaren eta ikastetxearen edo unibertsitatearen arabera prestakuntza-jarduerak antolatzeaz arduratuko dena.

— Ikastetxeko edo unibertsitateko praktika programako koordinatzailea: Kanpoko praktika akademikoaren programa antolatu, koordinatu eta kudeatzeaz arduratuko den pertsona. Ikastetxearen edo unibertsitatearen eta Audio Udalaren artean koordinatzaile gisa jardungo du pertsona horrek.

— Audio Udaleko praktika-programaren arduraduna: Audio Udaleko solaskidea izango da ikastetxeko edo unibertsitateko praktika programako koordinatzailearekin mintzatzeko, udalean bideratuko diren praktikak koordinatu, antolatu eta kudeatu ahal izateko.

5. Hezkuntza-lankidetzarako hitzarmenak eta akordioak

Oinarri hauek onesten direnetik aurrera edozein momentutan, Audioko Udalak eta ikastetxeek edo unibertsitateek hezkuntza lankidetzarako esparru-hitzarmenak formalizatu ahal izango dituzte, eta hi tzar men horiek finkatuko dute haien eta praktikak egiteko aukeratutako ikasleen arteko harremanak arautuko dituen esparrua.

Esparru-hitzarmenean oinarriturik, egin beharreko prestakuntza proiektu bakoitzeko berariazko hi tzar mena sinatu ahal izango da, eta hartan zehaztuko dira egin beharreko praktikarekin loturiko alderdi guztiak.

Oinarri hauek onestean, indarreko hartuko da Audio Udalaren eta ikastetxe baten edo unibertsitate baten artean, zentro horietako ikasleek Audioko Udalean egin beharreko praktikak arautzeko, aurrez sinaturiko esparru-hitzarmen oro, eta hori guztia kalterik egin gabe 2021. urtean praktikak Udalean egiteko interesa duen ikasle bakoitzak egin beharreko praktika horien alderdi guztiak zehazteko berariazko hitzarmena sinatzeko beharrari, ondoko oinarriak xedaturikoaren arabera.

6. Praktikak egiteko prozedura

2021ko otsailaren 15a baino lehen, aurreko oinarriak aipagaiduen hezkuntza lankidetzarako esparru-hitzarmena sinatua duten ikastetxeek eta unibertsitateek, beren ikasleek praktikak Audio Udaleko lan zentroetan egiteko eskaera egin ahal izango dute, dagozkien prestakuntza proiektuak aurkeztuta, haietan zehaztuko baitira hezkuntza helburuak eta garatu beharreko jarduerak.

Antolakuntza publikoko eta zerbitzu orokorretako Zerbitzua arduratuko da jasotako prestakuntza proiektu eskaerak tramitatzeaz eta hezkuntza praktikak egiteko beharreko kudeaketak egiteaz.

Antolakuntza publikoko eta zerbitzu orokorretako Zerbitzua Zerbitzu desberdinetara bidaliko ditu jasotako eskaerak, hezkuntza proiektuaren esparru materiala aintzat harturik. Haiei erantzuteko dauden langile baliabideen, baliabide ekonomiko eta materialen baitan egongo dira praktikak eta praktika horiek egin ditzaketen ikasleen kopurua.

Baliabideak kontuan izanda, eskaera gehiegi jasoz gero, Antolakuntza publikoko eta zerbitzu orokorretako Zerbitzuak memoria edo proiektu bakoitza baloratuko du, honako alderdi hauek kontuan hartuta:

- Proiektuaren helburuak (2 puntu).
- Audio Udalak kudeatutako zerbitzuekin bat etortzea eta arlo bakoitzak une bakoitzean ikaslearen prestakuntza bere gain hartzeko duen prestasuna (10 puntu).
- Prestakuntza-proiektuaren edukia inguruko enpresen beharretara egokitzea (6 puntu).
- Lan-ordutegia eta -denbora (2 puntu).

Erakundeko unitate batek prestakuntza-proiektua gauzatzea onetsitakoan, Antolakuntza publikoko eta zerbitzu orokorretako Zerbitzuak, praktika programaz arduratzen den pertsonaren bidez, eskaera egin duen ikastetxeko edo unibertsitateko pertsona koordinatzaileari jakinaraziko dio, ikasleak aukera ditzen eta tutorea izenda dezan. Aukeratutako ikasleek araudiak eskatzen dituen baldintza guztiak bete beharko dituzte.

Audio Udalean praktika programaz arduratzen den pertsonak praktiken begiralea izendatuko du.

Ikastetxeek eta unibertsitateek aurkeztutako praktikak egiteko eskaeren onarpena, oinarri honetan aurreikusitako epe kanpo erregistratzen bada eskaera, epearen barnean egindakoen onarpenaren ondoren dauden langile baliabideen eta baliabide materialen baitan egongo da, epean aurkeztutakoek lehentasuna izango baitute betiere.

7. Ikastetxeen eta unibertsitateen betebeharrak eta konpromisoak

Hitzarmena indarrean dagoen bitartean, ikastetxeen eta unibertsitateen egitekoa izango da:

1. Audio Udalean praktikak egin behar dituzten ikasleak aukeratzea, ikasle horiek Euskal Autonomi Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan praktika akademikoak egiteko behar adina ezagutza izan dezaten ahaleginduz.
2. Tutorea izendatzea, Audio Udalean praktika akademikoak egingo dituzten ikasleei laguntzeko eta jarraipena egiteko.
3. Audio Udalarekin eta aukeratu den ikaslearekin dagokion prestakuntza proiektua garatzeko beharreko dokumentuak sinatzea.
4. Beharreko eskola aseguruak eta, hala badagokio, aseguru osagarriak edo antzeko polizak izenpetuta edukitzea.

8. Audio Udalaren betebeharrak eta konpromisoak

Hitzarmena indarrean dagoen bitartean, honako betebeharrak izango ditu Audio Udalak:

1. Praktiketari ari den ikasle bakoitzeko begirale bat izendatuko du. Huraxe arduratuko da prestakuntza programaren arabera eta ikastetxearekin edo unibertsitatearekin prestakuntza jarduerak antolatzeaz.
2. Ikastetxearekin edo unibertsitatearekin eta aukeratu den ikaslearekin dagokion prestakuntza proiektua garatzeko beharreko dokumentuak sinatuko ditu.
3. Praktiketari ari den ikasleari dagokion kopurua ordaintzea, 13. Oinarrian xedaturikoaren arabera.
4. Ikaslearen eskura jarriko ditu praktikak egiteko ezinbestekoak diren baliabide materialak.
5. Laneko segurtasunaren eta higienezaren alorrean praktiketako ikasleari aplikatu dakioken legeria betetzeaz arduratuko da.
6. Tarteko eta amaierako jarraipen txostenak egingo ditu unibertsitateko tutoreari bidaltzeko.

9. Praktiketako ikaslearen eskubideak eta betebeharrak

1. Praktiak egiten dituzten bitartean honako eskubide hauek izango dituzte ikasleek:
 - a. Praktikek irauten duten bitartean begiralearen babesa izateko.
 - b. Begiraleak egindako azken txostena eskuratzeko, aurrera eramandako jarduera, iraupena eta, hala behar badu, izandako errendimendua berariaz aipatuta.
 - c. Ekarpen ekonomikoa jasotzeko, 13. oinarrian aurreikusitako baldintzetan.
 - d. Audio Udalaren aldetik autobabeserako eta ebakutzeko planei buruz informazioa jasotzeko, eta baita laneko materiala segurtasun baldintzetan erabiltzeari buruz jarraibideak jasotzeko ere.
 - e. Bere akademia, prestakuntza eta ordezkaritza eta partehartze jarduera betetzeko, aldeztatik beharreko denborekin erakunde laguntzaileari jakinarazita.
 - f. Ezintasunak dituzten ikasleen kasuan, praktikak ezintasun egoera horretatik etorritako edo egoera horrekin loturiko jarduerekin eta egoera pertsonalekin bateratzeko.
 - g. Indarrean dagoen araudian eta Lanbide Heziketako ikastetxeekin edo Unibertsitatearekin eta Audio Udalarekin sinaturiko Prestakuntzarako Lankidetzaren Hitzarmenetan aurreikusitako beste eskubide guztiak.
2. Era berean, eta praktika akademikoak egiten diren bitartean, honako betebeharrak izango dituzte ikasleek:
 - a. Hezkuntza lankidetzarako hitzarmenaren eta praktiken prestakuntza proiektuaren baldintzak ezagutu eta beteko dituzte, begiralearen aginduei jarraiki; praktika betetzeko beharrezko dokumentuak sinatuko dituzte.
 - b. Jarritako egunean hasiko dira praktikan Audio Udalean, prestakuntza proiektuan aurreikusitako ordutegia beteko dute eta Begiraleak emandako funtzionamendu, segurtasun eta ezbeharren aurreko prebentzio arauak beteko dituzte.
 - c. Prestakuntza proiektua garatuko dute eta prestasunez beteko dituzte Audio Udalarekin adostutako jarduerak, hartan finkatutako ildoan arabera.
 - d. Konfidentzi altasuna gordeko dute Audio Udaleko barne informazioari dagokionean eta sekretu profesionala beren jarduerari dagokienean, praktikan ari direnean eta haiek bukatutakoan ere.
 - e. Udal antolakuntzarekiko begirunez jokatu dute, kide den ikastetxearen edo unibertsitatearen izen ona babestuz.
 - f. Indarrean dagoen araudian eta Lanbide Heziketako ikastetxeekin edo Unibertsitatearekin eta Audio Udalarekin sinaturiko Prestakuntzarako Lankidetzaren Hitzarmenetan aurreikusitako beste edozein betebeharrak.
3. Aurreko atalean aurreikusitako betebeharrak ez badira betetzen, denbora baino lehenago deuseztatu ahal izango da praktika. Horretarako, Audio Udalak ikastetxeari edo unibertsitateari jakinaraziko dio.
4. Ikasleak praktikak utzi ahal izango ditu azterketak egiteko, hiru egun lehenago begiraleari jakinarazita. Arrazoi akademikoengatik edo beste edozein arrazoiengatik egin beharreko gainerako hutse giteen berri eman beharko die begiraleari eta tutoreari, eta beharreko baimena eskuratu beharko du.

10. Ikastetxeko edo unibertsitateko tutorearen eskubideak eta betebeharrak

Ikastetxeak edo unibertsitateak izendatutako tutoreak praktikak arautzen dituen araudiaren berri izateko eskubidea izango du, eta baita prestakuntza proiektuaren eta tutorizatu beharreko ikaslearen egonaldia zein baldintzetan egingo den jakiteko ere.

Era berean, honako betebeharrak izango ditu:

- a. Prestakuntza programa koordinatuko du Audio udaleko begiralearekin.
- b. Audio Udalean prestakuntza behar bezala garatzen dela gainbegiratuko du.
- c. Prestakuntza proiektuan gertatzen diren aldaketak baimenduko ditu.
- d. Konfidentzialtasuna gordeko du tutore lanen ondorioz ezagutuko duen Audio Udaleko barne informazioari dagokionean.

11. Audio Udaleko begiralearen eskubideak eta betebeharrak

1. Audio Udalak izendatutako begiraleak praktikak arautzen dituen araudiaren berri izateko eskubidea izango du, eta baita prestakuntza proiektua ezagutzeko eta zein baldintzatan garatuko den jakiteko ere.

2. Era berean, honako betebeharrak izango ditu:

- a. Ikasleei harrera egingo die eta aurrera eraman beharreko jarduera antolatuko du, prestakuntza proiektuan zehaztutakoaren arabera.
- b. Jarduerak gainbegiratuko ditu, praktikarako orientabideak emango ditu eta praktika kontrolatuko du.
- c. Audio Udalaren antolakuntzaren eta funtzionamenduaren eta intereseko araudiaren berri emango die ikasleei, segurtasunarekin eta ezbeharren aurreko prebentzioarekin loturiko jarraibideak bereziki.
- d. Ikastetxeko edo unibertsitateko tutore akademikoarekin koordinatuko du hezkuntza lankidetzarako hitzarmenean zehaztutako jardueren garapena, praktika behar bezala aurrera eramateko beharrezkoak izan daitezkeen prestakuntza proiektuaren aldaketak barne. Sor daitezkeen gorabeherak jakinaraziko eta erabakiko ditu halaber.
- e. Hurrengo oinarriak aipagai duen azken txostena egingo du.
- f. Ikasleari praktikak egiteko behar duen prestakuntza osagarria eskainiko dio.
- g. Konfidentzialtasuna gordeko du bere begirale jardueraren ondorioz ikasleekiko ezagutzen duen edozein informaziori dagokionean.
- h. Audio Udalean dauden bitartean beharreko laguntza emango die ikasleei gauzatzen dituzten jarduerak burutzeko behar izan ditzaketen izaera profesionaleko kontuei konponbidea emateko.

12. Begiralearen txostena

Begiraleak, praktikak bukatu ondoren, azken txostena egingo du eta unibertsitateko tutoreari eta ikasleari emango die. Txosten horretan, ikasleak egindako ordu kopuruaz gainera, prestakuntza proiektuan aurreikusitako eskumen generikoen eta espezifikoaren hainbat alderdi baloratuko dira.

Berariazko hitzarmenean hala zehazten denean, praktikaldiaren denboraren erdia igarotakoan, tarteko jarraipen txostena prestatu ahal izango da ikastetxeak edo unibertsitateak eskatuta.

13. Ikasketetarako laguntza poltsa

1. Audio Udalak ikasle bakoitzari araudiak ezartzen duen kantitatea ordainduko dio. Araudiak ezer ezartzen duenengan, hilean 150 euroko ikasketetarako poltsa edo laguntza emango dio ikasle bakoitzari, praktika akademikoak egiteak eragindako gastuak konpentsatzeko.

2. Hala eta guztiz ere, ikasketetarako hileko diru-laguntza 250 eurokoa izango da ikasleek asteen bost egunetan edo gehiagotan udal instalazioetara joan behar dutenean praktika akademikoak egiteko.

3. Prestakuntza dualeko ibilbideei lotutako praktiken kasuan, unean-unean indarrean dagoen LGSren proposizio-zatia ordainduko zaie ikasleei, Laudio Udalean egindako praktiken benetako orduen arabera, araudiak beste gauzaren bat ezartzen ez badu.

4. Ikasketetarako laguntzaren zenbatekoa hileror ordainduko da praktikak egiten diren denboraldian, ikasleei aurreko hilean egindako gastuak konpentsatzeko. Horretarako, jarduera prestakuntza proiektuaren arabera egin dela egiaztatuko du begiraleak aldez aurretik. Hala badagokio, heinean banatuko da gauden hilabeteen egindako praktika egunen arabera.

5. Antolakuntza publikoko eta zerbitzu orokorretako Zerbitzua izango da ikasketetarako laguntzak ebazteko eta haiek ordaintzeko eskumena duen organoa.

6. Praktika akademikoak Laudio Udalean egiten dituen ikasleak ez baditu betetzen oinarri hauetan jasotako betebeharrak, galdu egingo du ezarritako diru-kantitatea jasotzeko eskubidea. Praktikak egiten dituen bitartean ikasleak behar bezala justifikatu gabe egiten dituen hutsegiteak proportzionalki kenduko dira hileko zenbatekotik, oinarri hauetan aurreikusitako denbora baino lehen praktikaldia bukatzeko aukerari kalterik egin gabe.

7. Ikasleak ikasketetarako laguntza onartzeak esan nahi du bete egiten dituela oinarri hauetan jasotako baldintzak, eta baita ere hezkuntzako, zergako, gizarte segurantzako edo beste edozein eremuko aplikagarri den legedia.

14. Datu pertsonalak

Praktika-programa kudeatzeko bildutako datu pertsonalei dagokienean, honako hauetan xedaturikoa beteko da: Datu Pertsonalei eta eskubide digitalen bermeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretua, hura garatzen duen Araudia onestekoa, eta Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legea.

Laudion, 2021eko urtarrilaren 29an

Alkate-udalburua

ANDER AÑIBARRO MAESTRE